

**1952/2023 EBAZPENA**, 2023ko irailaren 13koa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikerketako errektoreordeak emana. Haren bidez, ikertzaileen eta teknologoen lan kontratazioa egiteko hautaketa-prozesurako deia egiten da Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez, jarduera hau egiteko: “Nitrogeno (N) inorganiko murriztua xurgatzeko gai diren mikroorganismo diazotrofikoez baliatzea gramineoetan N (EUN) modu eraginkorragoan erabiltzeko”.

2019ko abuztuaren 29an, Ikerketa Zerbitzuak ikertzaileak kontratatzeke hautaprobetarako deia egiteko eskatu zuen, “Nitrogeno (N) inorganiko murriztua xurgatzeko gai diren mikroorganismo diazotrofikoez baliatzea gramineoetan N (EUN) modu eraginkorragoan erabiltzeko” ikerketa-proiektua garatzeko proiektuko lankide gisa. Ikerketa proiektuaren ikertzaile arduraduna Idoia Ariz Arnedo andrea da, Ramón y Cajal ikertzailea, Zientzien Sailari atxikia.

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoko zuzendari nagusiaren 2021eko abenduaren 17ko ebazpen baten bidez, deialdi hau onetsi zen: “Ikertzaileak kontratatzeke laguntzak. MRR Investigo programa”.

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoko zuzendari nagusiaren 2023ko ekainaren 15eko ebazpen baten bidez, Nafarroako Unibertsitate Publikoari dirulaguntza bat eman zitzaion “Ikertzaileak kontratatzeke laguntzak. MRR Investigo programa” deialdiaren barnean.

Laguntzen helburua da ikertzaile gazteak lan munduan sartzea, ikertzaile eta teknologiako langile gisa, Nafarroako I+G+b-ko Sistemako (SINAI) eragileek garatutako I+G+b-ko jardueretan parte hartuz eta jarduera horietan lagunduz. Gainera, SINAIko eragile horien ikerketako eta berrikuntzako gaitasunak indartzen laguntzea du xede.

Kontuan harturik Langileria Kudeatzeko Ataleko buruak egin duen proposamen txostena, Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak ontzat eman duena.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak errektoretza-taldearen egitura orokorra onetsi eta bere funtzioak zehazteke 2019ko uztailaren 3an eman zuen 1420/2019 Ebazpenaren bidez eskuordetu dizkidan eskumenak erabiliz,

#### **EBAZTEN DUT:**

Lehenbizikoa.- Onestea Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez ikertzaileen lan kontratazioarako hautaketa-prozesua egiteko deialdia, baita haren oinarriak ere, jarduera hau egiteko: “Nitrogeno (N) inorganiko murriztua xurgatzeko gai diren mikroorganismo diazotrofikoez baliatzea gramineoetan N (EUN) modu eraginkorragoan erabiltzeko”.

Bigarrena.- Ebazpen hau Hautaketa Batzordeko kideei eta Ikerketa Zerbitzuari aditzera ematea.

Hirugarrena.- Agindua ematea ebazpen hau Unibertsitatearen iragarki ohol elektronikoan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

Iruñean, 2023ko irailaren 13an

Francisco J. Arregui San Martín  
Ikerketako errektoreordea

**IKERTZAILEEN LAN KONTRATAZIOA EGITEKO HAUTAKETA-  
PROZESURAKO DEIALDIA HONAKO JARDUERA HAU GARATZEKO:  
“NITROGENO (N) INORGANIKO MURRIZTUA XURGATZEKO GAI DIREN  
MIKROORGANISMO DIAZOTROFIKOEZ BALIATZEA GRAMINEOETAN N  
(EUN) MODU ERAGINKORRAGOAN ERABILTZEKO”.**

Hauek dira deialdia arautuko duten

**OINARRIAK**

**1.- DATU OROKORRAK**

**-Deialdiaren xedea:** deialdi honen xedea ikertzaileak hautatzea da, ondoren lan kontratazioa egiteko jarduera hau garatzeko: “Nitrogeno (N) inorganiko murriztua xurgatzeko gai diren mikroorganismo diazotrofikoez baliatzea gramineoetan N (EUN) modu eraginkorragoan erabiltzeko”.

**-Maila profesionala:** proiektuko lankidea, batez ere ikerketa-lanetan aritzeko.

**-Eginkizunak:** kontratatuko den pertsonak ezagupenak eduki behar ditu mikroorganismo diazotrofikoen azterketan, zehazki nitrogeno (N) inorganiko murriztua xurgatzeko gai diren eta nutrizio kondizio nitrogenatuetan landare hazkuntza estimulatzeko gai diren mikroorganismoetan. Honako lan hauek eginen ditu, BioestimuliaN proiektuaren zeregin espezifikoetarako (PC018-019, Nafarroako Gobernuak 2022ko deialdian finantzatua):

- 1) Hazkuntzarako ingurune espezifikoak prestatu: inguruneen formulazioa, kalkuluak eta nutrienteen balantzea, jatorrizko memorian zehaztutako tratamenduetarako.
- 2) Mikroorganismoek nitrogenoa xurgatzeko dituzten sistemetako bakoitzaren funtzionaltasuna aztertu, sistema bakoitzak sortutako N-ren azterna isotopikoa determinatuz ( $\delta^{15}\text{N}$ ); adibidez, nitrogenasa vs AmtB.
- 3) Landarearen eta mikroorganismoen arteko asoziazioaren azterketa kontrolatua egin,  $\text{N}_2\text{atm}$  vs  $\text{NH}_3/\text{NH}_4^+$  zenbait kontzentraziorekin N-ren iturri gisa (teknikak: mikroskopia, EUN,  $\delta^{15}\text{N}$ , etab.).
- 4) Landare eta mikroorganismoen hazkunde-esperimentuak egin rhizoboxetan eta kondizio kontrolatuetan, biofilmaren eta alderdi begetalen garapena ebaluatzeko.

Bereziki baloratuko da *Azospirillum brasilense*ren hazkuntzan esperientzia izatea eta honako teknika hauez baliatzen jakitea: hazkuntza-kurbak; biofilmaren eraketa; lupa eta mikroskopia optikoa erabiltzea; nutrienteen balantzea, bereziki karbonoarena eta nitrogenoarena; nitrogenoaren eta karbonoaren azterna isotopikoak interpretatzea eta erabiltzea nutriente horien erabileraren eraginkortasuna kalkulatzeko.

**-Kontratu mota:** 2021eko abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarriarekin bat etorritik, aldi jakin baterako kontratu bat egingen da, bi mota hauetako bat, hain zuzen: Errekuperazioko, Eraldaketako eta Erresilientziako Planeko jarduerak egiteko edo Europar Batasuneko funtsen bidez finantzatutako aldi baterako programak egiteko (kasu batean zein bestean, proiektua egiteko behar den denboraz).

**-Aurreikusitako iraupena eta lanaldi mota:** 24 hilabetekoa, lanaldi osoan. Iraupen hori gutxi gorabeherakoa da, 32/2021 Errege Lege Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarrian zehaztutako finantzaketaren mende egonen baita, baina ezin izanen da inola ere proiektua gauzatzeko behar den denbora baino luzeagoa izan.

**-Ordainsariak:** Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Ikertzaileak Kontratatzeko Erregelamenduak bere eranskinean ezarritakoak, 2022. urtera egokituak; erregelamendu hori 2017ko maiatzaren 3ko Gobernu Kontseiluaren erabaki baten bidez onetsi zen, eta 2022ko apirilaren 12ko Gobernu Kontseiluaren erabaki baten bidez aldatu.

Diru-gehigarriak ordaintzeko aukera egonen da, proiektuan edo kontratuan ezarritako helburuak betez gero. Diru-gehigarri horiek ordaintzeko, proiektuaren arduradunak ordaintzea justifikatzen duen azken txosten bat egin beharko du, eta aurrekontuan diru kopuru nahikoa izan beharko da.

**-Finantzaketa:** Next-Generation MRR funtsak.

**-Argitaratzeko tokiak:** deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeaz gainera, deialdiarekin lotutako egintza eta ebazpen guztiak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki-ohol elektronikoan argitaratuko dira.

## **2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

2.1.- Hautaketa-prozesuan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako herritarra izatea edo Europar Batasuneko estaturen batekoa izatea edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiar Estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzeko zaion estaturen batekoa.

Halaber, Espainiako, Europar Batasuneko estatuetakoa edo aipatu nazioarteko itunak aplikatzen diren eremuko estatuetakoa herritartasuna dutenen ezkontideek parte hartzeko aukera dute, betiere zuzenbidearen arabera bananduak ez badaude; herritartasuna duenaren ondorengoek edo haren ezkontidearen ondorengoek ere parte hartzeko aukera dute, zuzenbidearen arabera bananduak ez badaude, baldin eta 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.

Halaber, aurreko paragrafoetan sartuta ez dauden herrialdeetakoak izan eta Espainian legezko bizilekua duten atzerritarrek administrazio publikoetako lan kontratupeko langile aritzeko aukera izanen dute. Espainian bizi ez diren atzerritarrek parte hartzeko aukera izanen dute, betiere parte hartzeko betekizunak betetzen badituzte. Kasu horretan, kontratazioa egin ahal izateko atzerritartasunari buruzko legeek eskatzen dituzten baimenak lortu beharko dituzte.

b) 16 urte edo gehiago eta 30 baino gutxiago izatea.

c) Kontratua hasi aurreko egunean langabe gisa izena emanda egotea dagokion enpleguaren zerbitzu publikoan.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egotea, eta zerbitzu horrek aurrez hautatua izatea.

d) Gazte Bermearen Espainiako Erregistroan izena emanda egotea.

e) Arlo hauetako unibertsitate masterreko titulazio akademiko ofiziala: Agronomia, Landare Fisiologia, Agrobiologia edo Mikrobiologia.

Atzerrian erdietsitako titulazioak badira, izangaiak eskuan izan beharko du homologazioaren egiaztatzea, edo baliokidetzeara, hala badagokio. Betekizun hori ez zaie aplikatuko lanbide arautuen eremuan prestakuntza profesionalaren aitortzea Europako Erkidegoko Zuzenbidearen xedapenen babesean erdietsi duten izangaiei.

f) Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin kontratu harremanik ez eduki izana kontratazioaren aurreko sei hilabeteetan.

Deialdiko xede diren lanpostuak betetzea galarazten duen gaixotasunik edo muga fisikorik edo psikikorik ez edukitzea.

h) Diziplinako espediente baten ondorioz edozein administrazio publikotako zerbitzutik baztertua ez izatea, eta ez egotea epai irmo baten bidez ezgaitua eginkizun publikoak betetzeko.

2.2.- Aurreko arauetan ezarri diren baldintzak eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean bete beharko dira, eta kontratazioa egin arte beteko dira.

### **3.- ESKAERAK**

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak bere webgunean argitaratuko du lan eskaintza, eta aurrehautaketa eginen du eskaintza horretan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean.

Eskabideak aurkezteko epea 10 egun balioudun igaro ondoren bukatuko da, deialdi hau **Nafarroako Aldizkari Ofizialean** argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Hautaketa-prozesu honetarako **inskripzioa telematikoki** egin beharko da, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren goitza elektronikoaren bidez, helbide honetan:

<https://sedeelectronica.unavarra.es/sede/zerbitzu-katalogoa/guztiak/ikertzaileen-hautaprobak>

Lehenik, “**Hasi tramitea**” botoia sakatu behar da.

“Erantsi fitxategiak” eremuan, dokumentu hauek erantsi beharko dira lanpostu kategoria bakoitzerako:

- Parte hartzeko eskabidea.
- Nortasun Agiri Nazionalaren, AIZren edo pasaportearen fotokopia.
- Deialdian eskatzen den tituluaren eta espediente akademikoaren fotokopia, batez besteko nota eta guzti.
- Curriculum vitae, norberak egoki jotzen dituen merezimenduen egiaztagiriekin batera.
- Gazte Bermearen Espainiako Erregistroan izena emanda egotea egiaztatzen duen dokumentazioa.

Parte hartzeko eskabide eredu esteka honetan dago:

<http://www2.unavarra.es/gesadj/registroGeneral/instancias/recursos-humanos/contratacion-personal-investigador.pdf>

#### **4.- IZANGAIEN ONARPENA**

4.1.- Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta gero, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da, baztertua izateko arrazoia esanez, baztertuen kasuan. Izangai bazterturik ez bada, zuzenean onetsiko da behin betiko zerrenda.

4.2.- Hirugarren oinarriak aipatzen dituen dokumentuak ez aurkezteagatik behin-behinean baztertzea galarazi gabe, eskaera epez kanpo aurkeztea edo lehiaketaren bidez lortu nahi den lanpostua betetzeko bete behar diren baldintzak ez betetzea baztertzeko arrazoiak izanen dira, eta, gainera, horiek ezin izanen dira zuzendu.

4.3.- Izangai baztertuek edo zerrendan azaldu ez direnek zilegi dute erreklamazioa egitea eta, akatsen bat badago, akatsak zuzentzea, behin-behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo 5 egun balioduneko epean. Ezartzen den epean baztertuak izateko arrazoia konpontzen ez duten izangaiak behin betiko baztertuko dira, eta ez dute probarik egingen.

4.4.- Eskaerak aurkezteko eta akatsak zuzentzeko epea bukatu eta gero, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratuko da.

4.5.- Izangaiak hautaketa-prozesuan onartuen zerrendan egoteak edota 6.2 oinarriak aipatu hautaketa-prozesua gainditu dutenen zerrendan egoteak ez du ekarriko inoiz ere unibertsitateak aitortzea betetzen dituztela deialdiko oinarrietan eskatu diren baldintza orokorrak edo bereziak. Kontratatzeko deitzen dituzten izangaiek ziurtatu eta egiaztatu beharko dituzte horiek, jatorrizko dokumentazioa aurkeztu beharko baitute kontratua sinatzen dutenean.

4.6.- Parte hartzeko eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioarekin alderaturik jatorrizko dokumentazioa okerra edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, kontratua sinatzeko ezintasuna eta kontratazio zerrendatik baztertzea ekarriko du, interesdunak berak sinatuko duen erantzukizunpeko adierazpenarekin bat etorritz.

#### **5.- HAUTAKETA-PROZESUA**

Izangaien merezimenduak baloratuko dira, aurkeztutako dokumentazioarekin bat etorritik eta I. eranskineko baremoaren arabera.

Izangaiek eskabideak aurkezteko epea bukatzean dituzten merezimenduak bakarrik baloratuko dira, eta gero lortutakoak ez dira kontuan hartuko. Hautaketa Batzordeak inola ere ez du onartuko izangaiek alegatu ez duten edo agirien bidez frogatu ez duten merezimendurik, eta ezin izanen du apartatu bakoitzean adierazitako gehieneko puntuazioa baino handiagorik eman.

Adierazten diren merezimendu guztiak zuzenbidean baliozkoa den edozein baliabideren bidez frogatu behar dira.

Hautaketa Batzordeko kide bakoitzak baloratuko ditu izangaien merezimenduak. Azken puntuazioa izangai bakoitzari emandako puntuazioen batezbestekoa izanen da.

### **6.- HAUTAKETA-PROZESUAREN EBAZPENA**

6.1.- Izangaiek aurkeztutako merezimenduen balorazioa amaitu eta gero, Hautaketa Batzordeak Ikerketako errektoreordeari bidaliko dio hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda, lortutako puntuazioekin.

6.2.- Ikerketako errektoreordeak ebazpena emanen du hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda onesteko, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki-ohol elektronikoa argitaratuko da.

6.3.- Deialdi honetan sortzen den kontratazio zerrendak 3 urteko indarraldia edukiko du argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Indarrean dagoen bitartean, kategoria bera eta ia eginkizun berak dituzten langileak kontratatzeke premia sortzen denean ere erabiltzen ahalko da kontratazio zerrenda hori, proiektu, kontratu, hitzarmen edo katedra baterako edo institutuko edo ikerketa-taldeko funtsetarako izan, betiere hurrenkera ordena errespetatuz.

6.4.- Deialdi honen ondoriozko kontratazio zerrendan egonik kontratu bat onartzen duten izangaiei ez zaie beste edozein lanpostutarako kontraturik eskainiko. Dena dela, eskainiko zaie baldin eta kontratua bukatzeko 15 egun edo gutxiago gelditzen badira.

### **7.- HAUTAKETA-BATZORDEA**

Batzordeburua: César Arrese-Igor Sánchez doktorea, unibertsitateko katedraduna, Zientzien Sailari atxikia, Ikerketako errektoreordeak delegatuta.  
Idazkaria: Idoia Ariz Arnedo doktorea, Ramón y Cajal ikertzailea, Zientzien Sailari atxikia.  
Batzordekidea: Berta Lasa Larrea, kontratupeko irakasle doktorea, Zientzien Sailari atxikia.

### **ORDEZKO HAUTAKETA-BATZORDEA**

Batzordeburua: Esther González García doktorea, unibertsitateko irakasle titularra, Zientzien Sailari atxikia.

Idazkaria: Estibaliz Larrainzar Rodríguez doktorea, Ramón y Cajal ikertzailea, Zientzien Sailari atxikia.

Batzordekidea: Miriam Gil Monreal, kontratupeko irakasle doktorea, Zientzien Sailari atxikia.

Hautaketa Batzordearen jarduerak, une oro, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezartzen dutenaren arabera gauzatuko dira. Jakinarazpenak egiteko eta bestelako gorabeheretarako, Hautaketa Batzordearen egoitza Nafarroako Unibertsitate Publikoko Administrazioko eta Kudeaketako eraikina izanen da.

### **8.- DATU PERTSONALEN BABESA**

Nafarroako Unibertsitate Publikoak langileen kudeaketaren arloan antolatutako prozesuetan parte hartzeak interesdunen datuak tratatzea ekarriko du berekin. Datu horien tratamenduaren arduraduna Nafarroako Unibertsitate Publikoa da.

Datuen tratamendua aplikatzekoa zaion araudiari jarraikiz eginen da, hots, Datuak Babesteko 2016/679 EB Erregelamendu Orokorrari eta Datu Pertsonalak Babesteko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraikiz. <http://www.unavarra.es> webgunean argitaratutako Tratamendu Jardueren Erregistroan kontsulta daiteke nola eginen den tratamendu hori, "GIZA BALIABIDEAK" atalean.

Tratatuko diren datuak batez ere hautaketa-prozesuetako izangaiak eta NUPeko langileenak izanen dira; hauek hain zuzen ere: izena, deiturak, NANa, datu akademikoak eta profesionalak eta, beharrezkoa denean, bankuko datuak eta Gizarte Segurantzakoak, edo ondoren deskribatzen den xedea betetzeko beharrezkoak direnak.

Datuen tratamendua justifikatzen duen xedea hau da: hautaketa-prozedurak, mugikortasunekoak, egoera administratiboak, ziurtagiriak, edo Giza Baliabideen arloan NUPen eskumenekoak diren beste batzuk tramitatzea.

Xede horrek interes publikoa edo botere publikoa legitimatzen du, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.e) artikulua ezartzen duen bezala. Hauek dira oinarri juridikoak, langileei buruzko beste arau batzuen artean: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 2015eko urriaren 30ekoa, eta Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzura dauden Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, 1993ko abuztuaren 30ekoa.

Datuak tratatzeko jardueri dagokienez, interesdunek eskubidea dute datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, haiei kontra egiteko eta transferitzeko. Horretarako, mezu bat bidali behar dute [delegado.protecciondatos@unavarra.es](mailto:delegado.protecciondatos@unavarra.es) helbidera, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoaren 11. artikulutik 18. artikulura bitartekoei jarraikiz. Desadostasunen bat izanez gero, Datuak Babesteko Espainiar Agentziara jo dezakete, <https://www.aepd.es/> domeinuaren bidez.

## **9.- ERREKURTSOAK**

Hautaketa Batzordeak erabakitzen dituen egintzen aurka, zilegi da gora jotzeko errekurtsua jartzea, errektoreari zuzendua, hilabeteko epean, aurkaratzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Deialdi honen aurka, haren oinarrien aurka eta beroriek aplikatzeko egintzen aurka, Hautaketa Batzordeak egindakoak ez direnean, zilegi da ondoko errekurtsuotako bat jartzea, arau indardunekin bat etorritz:

a) Aukerako berraztertze-errekurtsua errektorearen aurrean, hilabeteko epean, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua Nafarroako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aurrera.

## **I. ERANSKINA**

### **Ikertzaileak hautatzeko baremoa**

<b>ERABILIKO DEN BAREMOA ETA/EDO EGINEN DIREN PROBAK</b>		
<b>1. APARTATUA:</b> Izangaiaren prestakuntza akademikoa	<b>Puntuak</b>	40
<ul style="list-style-type: none"><li>- Ikasketa espedientea espedientearen batez besteko puntuazioari dagokion proportzioan balioetsiko da, gehienez ere 30 punturekin.</li><li>- Izangaiak lizentzia, ingeniaritza edo 300 ECTSko gradu bat badu Agronomiaren, Landare Fisiologiaren, Agrobiologiaren, Mikrobiologiaren edo horien pareko beste batean, gehienez ere 30 punturekin baloratuko da titulazioa.</li><li>- 300 ECTStik beherako titulazioa badu eta unibertsitate master bat Agronomiaren, Landare Fisiologiaren, Agrobiologiaren edo Mikrobiologiaren esparruan, berdin baloratuko da, hau da, gehienez ere 30 punturekin, titulazioaren eta unibertsitate masterraren ECTS kredituen portzentaje erlatiboaren arabera ponderatuz.</li><li>- Ikasketa Amaierako Lanak kontratu honen xede diren lanekin zerikusia izatea baloratuko da (5 puntu Ikasketa Amaierako Lan bakoitzeko, eta 10 puntu gehienez).</li></ul>		
<b>2. APARTATUA:</b> Prestakuntza espezifikoa eta hizkuntzak/nazioartekotzea	<b>Puntuak</b>	20

- Deialdiarekin eta kontratuko zereginekin lotutako gaietako prestakuntza espezifikoa; gai hauei buruzkoa: Landare Fisiologia, Mikrobiologia, Landareen eta Mikroorganismoen arteko Interakzioa, Pakete Estatistikoaren Erabilera, Nekazaritza Ekoizpen Jasangarria, Bioingurriak, etab.

1 puntu bat emanen da prestakuntza espezifikoko 2 kredituko (20 orduren baliokide). Merezimendutzat aurkeztutako ikastaro edo irakasgai bakoitzak 10 orduko iraupena izan behar du gutxienez. 10 puntu gehienez ere.

Ikerketako prestakuntzarekin lotutako dirulaguntzak lortu izana (gehienez 2,5 puntu dirulaguntza bakoitzeko, kontratuaren xedearekin zenbateko lotura duen).

- Hizkuntzak. Ingelesa jakitea: Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziak jasotako mailen arabera balioetsiko da, 3 puntu B2 maila, eta 4 puntu C1 maila edo hortik gorakoa.

- Nazioartekotzea: nazioarteko mugikortasun programetan parte hartu izana baloratuko da (akademikoetan eta/edo ikerketakoetan); 2,5 puntu nazioarteko mugikortasuneko beka edo programa bakoitzarengatik.

<b>3. APARTATUA: Esperientzia edukitzea kontratuaren arloan</b>	<b>Puntuak</b>	20
-----------------------------------------------------------------	----------------	----

- Ikerketako esperientzia, adibidez Landare Fisiologiarekin, Agronomiarekin edo Mikrobiologiarekin arloekin lotua: proiektuen kargura egindako kontratuak, praktiketakoaldiak, prestakuntza esperimentalekoaldiak, ikerketako prestakuntzarako egonaldiak, etab. Zuzendariak/prestatzaileak emandako ziurtagiriarekin behar bezala justifikatutakoaldiak bakarrik hartuko dira kontuan; iraupena hilabetetan jaso behar da. 2,5 puntu emanen dira hilabete bakoitzeko, eta 15 puntu gehienez ere.

- Teknika espezifikoez baliatzen jakiteagatik (frogatu beharra dago) “egin beharreko lanak” izeneko atalean aipatutako 4 puntuetan: 3 puntu trebetasun espezifikobakoitzagatik (10 puntu gehienez ere).

<b>4. APARTATUA: Elkarrizketa presentziala edo birtuala</b>	<b>Puntuak</b>	20
-------------------------------------------------------------	----------------	----

- Aurreko apartatuen baturan puntuazio handiena lortu duten 4 izangaiei elkarrizketa pertsonal bat egingen zaie, betiere 30 puntu edo gehiago lortu badituzte. Deialdian zehazten diren ikerketa lanak betetzeko izangaiak duen profilaren egokitasuna baloratuko da elkarrizketan.

Hautaketa-prozesua gainditzeko eskatzen den gutxieneko puntuazioa 50 puntu da.

Hautaketa-prozesuaren azken emaitzan gerta daitezkeen berdinketak 3. APARTATUAN puntuazio handiena atera dutenen alde ebatziko dira. Berdinketa badago, 4. APARTATUAN puntuazio handiena lortzen dutenen alde. Berdinketak jarraitzen badu, hautaketa-prozesua zozketaz erabakiko da.